*Es un coro juvenil fundado en Gernika en 1994 y dirigido por Julia Foruria. Está integrado por jóvenes de 8 a 17 años, estudiantes de música en el Conservatorio de la directora.*

*En 1997 mantuvo una gran actividad: participó en el concierto conmemorativo del 60 Aniversario del Bombardeo de Gernika en esta villa vizcaína; ganó el Primer Premio del Certamen de Zumarraga Antigua Abesbatzak; estrenó la ópera infantil de B. Britten El diluvio de Noé; también participó en el Certamen de Tolosa, en la Muestra de Getxo y en el Festival navideño de Baracaldo.*

*En 1998 obtuvo el Primer Premio en el 46 Concurso Internacional para voces jóvenes de Neerpelt (Bélgica); grabó un concierto para la Televisión Catalana; grabó su primer CD Gabon Kantak; participó en el concierto navideño Gernikako Gabonak.*

*En 1999 participó en el Festival Internacional de Vila Nova de Gaia (Portugal); Concurso Internacional de Cantonigrós (Barcelona), quedando en 4º lugar; Certamen de Tolosa, quedando también en 4º lugar; organizó y participó en el concierto Navidad de la Paz (Gernika)*

*En marzo del 2000 ha ganado el VI Certamen Nacional de Habaneras de Torrevieja (Alicante).*

*En este mismo mes de marzo ha obtenido la Medalla de Oro en el IV Certamen Antigua Abesbatzak y el honor de representar a Antigua Abesbatzak en el encuentro coral, que se celebró en Ejea de los Caballeros el 29 de abril pasado.*

# Coro Araba

1968an Koru-musikarekiko interesa erakutsi zuen gazte-talde batek sortu zuen abesbatza. Garai hartako egoera sozio-politikoarekin bat zetozen doinu berriak kantatuz eta herri musikan etengabe sakonduz ekin zion hasierako etapari, bere lehenengo zuzendaria izan zen Sabin Salaberriren partiturei esker.

Hala ere, herri-musika lantzeaz gainera, beste hainbat arlo ere jorratzen ditu, horien artean, polifonia klasikoa eta garaikidea, musika sinfoniko-korala eta gregoriar kantua. Azken honetan hainbat sari irabazi ditu Tolosako eta Arezzoko nazioarteko lehiaketetan.

Euskal Herrian kantatu du nagusiki, baina Espainiako hainbat probintziatan eta Italian, Frantzian, Portugalen, Belgikan eta Hungarian ere eman ditu kontzertuak eta Europako beste hainbat tokitan aritzeko gonbiteak jaso ditu.

Ondoko orkestra eta musika-taldeekin batera eman ditu kontzertuak: Gasteizeko Udal Musika Banda, Donostiako Ganbara Orkestra, Iruñeko Santa Zezilia Orkestra, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa et Bilboko Orkestra Sinfonikoa.

Bi diska grabatu ditu, horietariko bigarrena Jesus Guridi eta Vicente Goikoetxea arabar musikagileei eskainia. Era berean, 1997an, Samaniego Abesbatzarekin batera, Sabin Salaberri bere zuzendari ohiaren koru musika-lan guztiak grabatu zituen.

Ondoko zuzendari hauen gidaritzapean kantatu du: Sabin Salaberri, Anton Lete, Manu Sagastume eta 1996ez geroztik Roberto Ugarte da bere zuzendaria.

*Este coro de voces graves nace en 1.968 por la iniciativa de un grupo de jóvenes interesados en la música coral. En su primera etapa su trabajo se centró, gracias a las composiciones de quien fuera su primer director, Sabin Salaberri, en la interpretación de nuevas melodías acordes con el momento socio-político de la época y la profundización permanente en la música de raíz popular.*

*Sin embargo, su repertorio se extiende no sólo a las adaptaciones de la música popular vasca, sino, de manera importante, a la polifonía clásica y contemporánea, así como a la música sinfónico-coral y al canto gregoriano, especialidad esta última en la que ha obtenido diversos premios en concursos internacionales como Tolosa y Arezzo.*

*Sus intervenciones han tenido lugar preferentemente en todo el territorio de Euskal Herria y varias provincias españolas, aunque también ha ofrecido conciertos en Italia, Francia, Portugal, Bélgica y Hungría, recibiendo numerosas invitaciones para otros lugares de Europa.*

*En sus variadas facetas musicales, ha actuado en repetidas ocasiones acompañado por la Banda Municipal de Música de Vitoria-Gasteiz, Orquesta de Cámara de San Sebastián, Orquesta Santa Cecilia de Pamplona, Orquesta Sinfónica de Euskadi y Orquesta Sinfónica de Bilbao.*

*A lo largo de su historia el Coro ARABA ha grabado en solitario dos discos, el segundo de ellos dedicado a la música de los autores alaveses Jesús Guridi y Vicente Goikoetxea. Asimismo, en el año 1997 grabó, junto con la Coral Samaniego la obra coral completa de quien fuera su director, Sabin Salaberri.*

*Durante estos años, el coro ARABA ha sido dirigido por Sabin Salaberri, Anton Lete, Manu Sagastume y, desde 1996, por Roberto Ugarte.*

# Ezpela Gazte Korua

1990eko urrian Ezpeletako dantza taldearen inguruan sortu zen Ezpela korua, Denise Olhagarayen zuzendaritzapean. Kantu berri batzuen sortzeko nahiarekien, taldeak lau aldiz Haur Kantu Txapelketan parte hartu zuen. Bertzalde berriki, Laetitia Casabiancaren laguntzarekin (Baionako CNR-ren kantu koraleko irakaslea 1995 geroztik) ohizko kantuetaz gain (euskaraz, afrikanoz, ingelesez...) Ezpela koruak gaur egungo musikagileen polifoniak jaztatzen ditu.

*Nació en octubre de 1900 en torno al grupo de danzas de Espelette, bajo la dirección de Denise Olhagaray. Ha participado en cuatro ocasiones en la Haur kantu Txapelketa, con la intención de promover la creación de nuevas canciones. Por otra parte, y además de las canciones tradicionales (en euskera, africano, inglés...) el coro Ezpela trabaja las polifonías de los músicos contemporáneos con la ayuda de Laetitia Casabianca, profesora de canto coral en el CNR de Bayonne Côte Basque desde 1995.*

# Santa Cecilia

1928an sortu zuen Santa Zezilia Abesbatza Inozenzio Gaztelumendik, musika erlijiosoa eta euskal folklorea hedatzeko asmotan. Hasera haseratik, jaialdi ugaritan hartu zuen parte Euskal Herri osoan zehar. 1955. Urteaz geroztik, Estatura nahiz nazioartera zabaldu zuen bere jarduna.

Hain zuzen ere, garaiotan gertatu zen saridun Estatuko zenbait lehiaketan –Ejea de los Caballeros (Aragoi) eta San Vicente de la Barquera (Kantabria)- eta baita nazioarteko batzuetan ere –Lille (Frantzia) eta Langollen (Gales). 1985eko azaroan Vienako Adventum jaialdian hartu zuen parte eta 1989an berriz, Notre Dameko (Paris) Udaberriko Musika Saioetan.

Abesbatzak zuzendari asko izan ditu sorreratik hona: Aita Prieto, Jorda, Javier Bello Portu, Francisco Escudero, Iñaki Goñi, Andoni Sierra eta Xanti Lizeaga, besteak beste.

1996ko urrian Bihoztun Koruarekin bat egin eta beronen zuzendaria zen Javier Mugerzak hartu zuen Abesbatzaren arduna. Azken garai honetan honako jaialdiotan hartu du parte: Pasai Donibaneko VII. Musika Jardunaldian, 97ko Udazkeneko Abesbatz Emanaldietan, Aita Donostia I. Musika Astean, Antiguako XV. Musika Emanaldietan, Borjan (Aragoi) egindako XVIII Abesbatz Ihardunaldi Aragoiarretan, Antigua Abesbatzak 2. Lehiaketan. Azken honetan, entzulegoaren eta epaimahaiaren lehen sariak eskuratu zituen. Sari honen ondorioz, Santa Zezilia Abesbatzak aipaturiko lehiaketa ordezkatu zuen 1999ko maiatzean Ejea de los Caballeros-en burutu zen I. Nazio Sari Nagusian 2. Postua lortu zuelarik.

*En 1928 Inozenzio Gaztelumendi fundó la Coral Santa Cecilia con la intención de difundir la música religiosa y el folklore vasco, y ya desde sus comienzos tomó parte en numerosos eventos festivos en toda Euskal Herria. A partir de 1955, amplió el ámbito de sus actuaciones a nivel estatal e internacional.*

*Durante esta época, obtuvo diversos premios en concursos nacionales -Ejea de los Caballeros (Aragón) y San Vicente de la Barquera (Santander)- y en concursos internacionales –Lille (Francia) y Langollen (Gales). En noviembre de 1985, tomó parte en el festival Adventum de Viena, y en 1989 participó en los conciertos de primavera de Notre Dame (Paris).*

*La coral ha contado desde sus comienzos con numerosos directores: Padre Prieto, Jorda, Javier Bello Portu, Francisco Escudero, Iñaki Goñi, Andoni Sierra y Xanti Liceaga entre otros.*

*En octubre de 1996 se fusiona con el coro Bihoztun, tomando el director del mismo, Javier Mugerza, la dirección de la coral. Ha participado en la "VII. Musika Jardunaldia" en Pasai Donibane, en el Ciclo Coral de Otoño'97, en la I Semana Musical Aita Donostia, en el XV Ciclo Musical de la Antigua, en las XVIII Jornadas Coralistas Aragonesas celebradas en Borja (Aragón) y en el 2º Concurso Antigua Abesbatzak, logrando el primer premio del jurado y el premio del público. Como consecuencia de este premio representó a dicho concurso en el I Gran Premio Nacional que se celebró en mayo de 1999 en Ejea de los Caballeros consiguiendo el 2º puesto.*


Euskadiko Orkestra Sinfonikoa

2000KO MAIATZAREN 20AN, LARUNBATA, 20.30ETAN
KAPUTXINOEN ELIZAN

SÁBADO, 20 DE MAYO DE 2000, 20.30 HORAS
IGLESIA DE CAPUCHINOS

# amaierako kontzertua
# concierto de clausura

| | |
|---|---|
| * 1. Rapsodia Bascongada | P. José Antonio de Donostia (Donostia, 1886-1956) |
| 2. Lainoa | Anton Larrauri (Bilbao, 1932- ) |
| 3. Relámpagos | Luis de Pablo (Bilbao, 1930- ) |
| 4. Daphnis et Chloé (Suite n.2) | Maurice Ravel (Ciboure, 1875-1937) |

Isabel Alvarez, sopranoa
Errenteriako Andra Mari Abesbatza
Zuzendaria: José Manuel Tife Iparagirre
Bilboko Orkestra Sinfonikoa
Zuzendaria: Juan José Mena
* Estrenaldi nagusia

P. Jose Antonio de Donostia . . . .(p. 48)
Anton Larrauri . . . . . . . . . . . .(p. 59)
Luis de Pablo . . . . . . . . . . . . .(p. 62)
Maurice Ravel . . . . . . . . . . . . .(p. 63)

# Isabel Alvarez

*Estudia Canto y Arte Dramático en la Folkwanghochschule de Essen y en Milán con Rita Streich y Carla Castellani, respectivamente. A su vuelta funda, junto con Antxon Ayestarán, y dirige durante seis años la Escuela de Canto del Orfeón Donostiarra, que abandona en 1989 para dedicarse exclusivamente a su carrera como solista. Se ha especializado en oratorio y música antigua, así como en recitales, actuando en diversos festivales internacionales como los de Granada, Canarias, Mexico D.F., Budapest, Amberes, Lieja, San Sebastián, París, Santander, Sajazarra, Utrecht, y en prestigiosas salas y auditorios como el Nacional de Madrid, Auditorio de Zaragoza, Concertgebouw de Amsterdam, Châtelet de Paris, Konzerthaus de Viena, Schloss Eggenberg de Graz, o la Sala Steinway de New York. Ha sido dirigida por Jordi Savall, Pierre Dervaux, José Rada, J. Ramón Encinar, Gabriel Garrido y Carmelo A. Bernaola, entre otros.*

*Desarrolla asimismo una gran actividad en el mundo de la ópera barroca, clásica y contemporánea, con títulos como "Acis y Galatea" de A. de Literes; "El Hermano Enamorado", "La Serva Padrona" y "Flaminio" de G. B. Pergolesi; "El Triunfo del Honor" de A. Scarlatti (Doralice); "La Flauta Mágica" de W. A. Mozart (Pamina); "Orfeo y Euridice" de J. Fux (Euridice); "Ulisse in Campania"; "La Púrpura de la Rosa" de T. Torrejón de Velasco (Venus) e "Iziar" de M. de Oñate (Artadi), actuando en teatros como el Baraccano de Bologna, el Vittorio Emmanuele de Messina, el Arriaga de Bilbao o la Ópera de Burdeos.*

*Ha grabado para EMI, ASTREE, PHILIPS, FIDELIO-HOLLAND y ELKAR, así como para RNE, RADIO FRANCE, ETB y TVE, y más recientemente la obra de Antón Larrauri "Laiñoa", con la Orquesta Sinfónica de Euskadi bajo la dirección de Juan José Mena, y la ópera barroca "La Púrpura de la Rosa" de Torrejón y Velasco (Amor), bajo la dirección de Gabriel Garrido.*

# Errenteriako Andra Mari Abesbatza

## Coral Andra Mari de Errenteria

Jose Luis Ansorenak sortu zuen 1966an eta bere zuzendaria izan da 1994ko otsailera arte Jose Manuel Tife Iparragirrek zuzendaritza hartu zuen arte. Sari asko irabazi ditu aurkeztu den lehiaketetan eta Madrilen (Errege Antzokia, Auditorioa), Bartzelonan, Sevillan, Pereladako Jaialdian, Santanderreko Nazioarteko Jaialdian, Donostiako Hamabostaldian, Bilboko Opera Denboraldian, Malagan, eta beste hainbat lekutan eman ditu kontzertuak.

Orkestra askorekin batera aritu da, horien artean, Madrileko Orkestra Sinfonikoa, Espainiako Orkestra Nazionala, Scottish Chamber Orchestra, Buenos Aireseko Filarmonikoa, Cadaqueseko Orkestra, Malaga Hiriko Orkestra, Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, etab... Enrique García Asensio, Odón Alonso, Nicholas Kramer, Jesús López Cobos, Leopold Hager, Paul Daniel, Carlo Rizzi, Doron Salomon, David Robertson, Antonio Ros Marbá, Juan José Mena, Stefano Ranzani maisuen zuzendaritzapean, besteak beste.

Suiza, Belgika, Italia, Austria, Frantzia, Portugal, Argentina eta beste hainbat herritan zehar burutu ditu birak. Diska ugari grabatzeaz gainera, era guztietako koru-musika lantzen du, horien artean opera eta zartzuela antzeztuak.

Euskal Musika lantzea da bere berezitasunik nagusiena eta Aita Donostiaren musika-lanik gehien grabatu dituen Abesbatza da; grabazio horien guztien artean Poema de la Pasión azpimarra daiteke.

Urtero burutzen den MUSIKASTE jaialdia, Euskal Musikagileen Astea sortu zuen Errenterian eta baita garai guztietako 1400 musikagileren 20.000 partitura biltzen dituen EUSKAL ERESLARIEN BILDUMA/ARCHIVO DE COMPOSITORES VASCOS ere.

# Bilboko Orkesta Sinfonikoa

1922an sortu zen. Urte bereko martxoaren 8an eman zuen bere lehenengo kontzertua Arriaga Antzokian Armand Marsick-en zuzendaritzapean. Gero, Vladimir Golschmann, Jesús Arambarri, Antoine de Bavier, Rafael Frühbeck de Burgos, Alberto Bolet, José Limantour, Pedro Pirfano, Urbano Ruiz Laorden eta 1993an Theo Alcántara zuzendarien batutapean aritu da. Gaur egun, Juan Jose Mena da bere zuzendaria.

Zuzendari gonbidatuen artean Arbós, Pérez Casas, Sorozabal, Argenta, Von Benda, Markevitch, E. Halffter, Ros Marbá, García Asensio, Gilbert Varga... azpimarra daitezke eta beren musika-lanak zuzendu dituzten Maurice Ravel, Jesús Guridi, Cristóbal Halffter, Jesús Arambarri, Carmelo Bernaola, Luis de Pablo eta beste hainbat musikagileren batutapean ere jo du. José Iturbi, Arturo Rubinstein, Jacques Thibaud, Rugiero Ricci, Joaquín Achúcarro, Félix Ayo, Nicanor Zabaleta, Narciso Yepes, Alicia de Larrocha, Ivo Pogorelich, eta beste hainbat bakarlarirekin batera eman ditu kontzertuak, baita Victoria de los Angeles, Montserrat Caballé, Alfredo Kraus, Plácido Domingo, Luciano Pavarotti, Mirella Freni, Mario del Mónaco, José Carreras kantariekin ere, besteak beste eta Donostiako Orfeoia, Bilboko Koru Elkartea, Iruñeko Orfeoia, Bergarakoa, ABAOko Korua, Errenteriako Andra Mari Abesbatza, Easo Abesbatza, eta abarrekin ere aritu da.

Ondoko jaialdi hauetan parte hartu du: Madrileko "Orquestas del Mundo" zikloan, Lisboako Erakusketa Unibertsalean, Santanderreko Nazioarteko Jaialdian, Donostiako Musika Hamabostaldian, Cuencako Musika Erlijiosoko Jaialdian, Parisko Jaialdian.

Azkeneko urteotan hainbat grabazio burutu ditu, horien artean, Juan Crisostomo Arriagaren hainbat musika-lan ezohiko, Madinaren Euskal kontzertua lau gitarra eta orkestrarako, gazteentzako orkestra-gida. Gaur egun, 30 konpaktuz osatutako katalogo bat burutzeko asmoa du, hiru urtetan. Horietariko lehenengoa Jesus Guridiren Amaia Opera da eta duela gutxi egin da bere aurkezpena. Horrek ireki du euskal musikari dagokion arloa.

*Fue fundada en 1922. Su primer concierto tuvo lugar el 8 de marzo de este año en el Teatro Arriaga bajo la batuta de Armand Marsick. A él le siguieron Vladimir Golschmann, Jesús Arambarri, Antoine de Bavier, Rafael Frühbeck de Burgos, Alberto Bolet, José Limantour, pedro Pirfano, Urbano Ruiz Laorden y en 1993 Theo Alcántara. En la actualidad es director titular Juan José Mena.*

*Entre sus directores invitados se puede destacar a Arbós, Pérez Casas, Sorozabal, Argenta, Von Benda, Markevitch, E. Halffter, Ros Marbá, García Asensio, Gilbert Varga... También los compositores Maurice Ravel, Jesús Guridi, Cristóbal Halffter, Jesús Arambarri, Carmelo Bernaola, Luis de Pablo y otros, dirigiendo sus propias obras.*

*Han actuado con la BOS solistas instrumentales como José Iturbi, Arturo Rubinstein, Jacques Thibaud, Rugiero Ricci, Joaquín Achúcarro, Félix Ayo, Nicanor Zabaleta, Narciso Yepes, Alicia de Larrocha, Ivo Pogorelich, etc.*

*También solistas vocales, como Victoria de los Angeles, Montserrat Caballé, Alfredo Kraus, Plácido Domingo, Luciano Pavarotti, Mirella Freni, Mario del Mónaco, José Carreras, etc.*

*Coros como el Orfeón Donostiarra, la Sociedad Coral de Bilbao, Orfeón Pamplonés, Orfeón Bergarés, Coro de la ABAO, Coral Andra Mari de Errenteria, Coro Easo, etc...*

*La BOS ha actuado en Madrid en el ciclo "Orquestas del Mundo", en la Exposición Universal de Lisboa, en el Festival Internacional de Santander, Quincena Musical Donostiarra, Festival de Música Religiosa de Cuenca, Festival de París...*

*También ha realizado en los últimos años diversidad de grabaciones, entre las que destacamos obras infrecuentes de Juan Crisóstomo de Arriaga, Concierto vasco para cuatro guitarras y orquesta de Fco. Madina, Guía de orquestas para jóvenes. Actualmente tiene en proyecto un catálogo de 30 CDs, realizable en tres años. Del primero de ellos, la ópera Amaya de Jesús Guridi, se ha hecho recientemente la presentación y es el que ha abierto la serie proyectada de música vasca.*

# Juanjo Mena Osteriz

Gasteizko Jesus Guridi Goi Mailako musika eskolan harmonia eta konposizio ikasketak burutu zituen C. Bernaola maisuarekin.

1993an orkestra zuzendaritzako goi mailako ikasketak bukatu zituen, Madrileko Goi Mailako Musika Kontserbatorioan, E. Garcia Asensio irakaslearekin eta ikasketa bukaerako Ohorezko Saria eskuratu zuen.

Guridi-Bernaola bekari esker Alemania eta Frantziara joan zen zuzendaritza ikasketak sakontzera eta S. Celibidache maisu handiaren saioa, eskola zein ikastaroetan parte hartu zuen.

Jesus Guridi Musika Eskolako Tresnajoleen Taldeko zuzendaria izan da 1987tik eta musika garaikidearen egitarau asko eraman du Espainia osoan zehar, tartean euskal musikagileen enkarguzko obra asko estrenatuz. Gasteizko Gazteen Orkestrako zuzendari laguntzailea izan zen 1992an. 1997an EGO (Euskal Herriko Gazte Orkestra) taldearen zuzendaritza hartu zuen, baita Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren Zuzendaritza Laguntzaile lanpostua, Gilbert Varga eta Mario Venzago maisuen aldamenean.

1993ko irailan Bilboko Sinfoniko Orkestra zuzentzen du lehenengo aldiz, eta orduz geroztik hainbat aldiz zuzendu ondoren, 1999ko uztailan Zuzendari Titularra izendatzen dute.

Hainbat orkestra sinfoniko zuzendu ditu: Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, Espainiako Orkestra Nazionala, Georgiako Orkestra Sinfonikoa, eta Bartzelonako Orkestra Sinfonikoa, besteen artean.

*Se formó inicialmente en la Escuela Superior de música de Vitoria-Gasteiz, donde estudió armonía, composición e instrumentación con C. Bernaola.*

*En 1993 finalizó estudios de dirección de orquesta en el Real Conservatorio Superior de Música de Madrid con el maestro E. García Asensio, obteniendo el Premio de Honor.*

*Mediante la beca Guridi-Bernaola realizó estudios de dirección de orquesta en Alemania, asistiendo a ensayos, clases y cursos con el maestro S. Celibidache.*

*Ha sido director del grupo instrumental Jesús Guridi desde 1987 con el que ha realizado programas de música contemporánea por todo el estado, con estrenos de numerosas obras de encargo de compositores vascos. En 1992 fue director asistente de la Joven Orquesta de Vitoria-Gasteiz. En 1997 asume la dirección de la EGO (Euskal Herriko Gazte Orkestra) y la corresponsabilidad de la dirección artística de la Orquesta Sinfónica de Euskadi, en calidad de Director Asociado, junto con los maestros Gilbert Varga y Mario Venzago.*

*En septiembre de 1993 dirige por vez primera a la Bilboko Sinfoniko Orkestra comenzando una estrecha colaboración que le lleva a ser elegido director titular en julio de 1999.*

*Ha dirigido diversas orquestas, tales como la Orquesta Sinfónica de Euskadi, Orquesta Nacional de España, Orquesta Sinfónica de Georgia y Orquesta Sinfónica de Barcelona, entre otras.*

# musikagileak

# compositores

# Juan de ANCHIETA

1462 urtearen inguruan Azpeitian jaio zen. Iruñeko katedralean izan ote zen susmoa badago, baina inork ez daki ziurtasun osoz zer heziketa izan zuen hasieran. 1489an, 27 urte zituela eta Isabel Erregina Katolikoaren kaperaua eta kantaria zela, ezagutu omen zituen, antza, Gortean mugitzen ziren musikagileak eta bertan entzuten ziren garai horretako musikalanak, nolabaiteko eragina izan zutenak gero musika sortzeko erakutsi zuen etorri handiko estiloan.

Errege Familiaren zerbitzutan igaro zituen hogeita hamar urteetan, Flandriara joan behar izan zuen, 1504. urtearen inguruan, Juana Printzesa laguntzera.

Juan de Salinas bezalako musika-teorikoek eta Fernández de Oviedo eta Menéndez y Pelayo bezalako idazleek bere garaiko kideen artean izan zuen ospea aipatzen dute.

Bi dozena musika-lan polifoniko eta gehiago ezagutzen ditugu eta hona hemen Aita Donostiak esan duena horiei buruz: Las misas, motetes, magnificats de Anchieta son de una escritura fácil, correcta, que no busca la dificultad por el gusto de vencerla. No llega tal vez a la altura de un contemporáneo suyo, Josquin des Prés, ciertamente, pero el expresivismo de la música de Anchieta es de buena ley y la hace muy interesante.

Juan de Antxietak gaisorik eta erretiratua igaro zituen bere bizitzaren azkeneko lau urteak (1519-1523) Azpeitian eta bertan hil zen 1523ko uztailaren 30ean.

*Nació en Azpeitia en torno a 1462. Se especula con su posible estancia en la catedral de Pamplona, pero no se conoce con seguridad su formación inicial. Al aparecer en 1489 con 27 años, como capelián y cantor de la reina Isabel la Católica, se supone que fue en la Corte donde en contacto con los autores y composiciones de la época, alcanzó un inspirado estilo compositivo.*

*En sus treinta años de servicio a la Familia Real también se trasladó a Flandes probablemente en 1504, acompañando a la princesa doña Juana.*

*Teóricos musicales, como Juan de Salinas, o escritores como Fernández de Oviedo y Menéndez y Pelayo recalcan la celebridad de que gozó entre sus contemporáneos.*

*Se conocen dos docenas largas de composiciones polifónicas suyas, de las que el P. Donostia dice: Las misas, motetes, magnificats de Anchieta son de una escritura fácil, correcta, que no busca la dificultad por el gusto de vencerla. No llega tal vez a la altura de un contemporáneo suyo, Josquin des Prés, ciertamente, pero el expresivismo de la música de Anchieta es de buena ley y la hace muy interesante.*

*Juan de Anchieta vivió los últimos cuatro años de su vida (1519-1523) retirado y enfermo en Azpeitia. Falleció en esta población el 30 de julio de 1523.*

# Tomás ARAGÜES BERNARD

1932an jaio zen Albalaten (Zaragoza). Donostiako Kontserbatorioko katedraduna izateaz gainera, bertako Koruak eta Orkestra zuzentzen ditu. Easo Koruaren zuzendaria izan zen 1977an. 1974tik 1978ra Donostiako Talde Barrokoa zuzendu zuen. 1980an Donostiako Kontserbatorioko Orkestra berria sortu zuten eta orduz geroztik bere zuzendaria izan da.

Bilboko Kontserbatorioan egin zituen musika-ikasketak eta nazioarteko ikastaroetan sakondu zituen.

Musika-lan ugari sortu du: Hiru sinfonia. Rosa de pasión (1960). Ebroren sinfonia (1961). Gure etxea (1963). Tronpa eta orkestrarako kontzertua (1973). Euskal boskotea (1975). Bost eleiz eresi (1979).

Hainbat sari irabazi ditu musikagile-lanetan: Torreviejan (Alacant) Abestaldeentzako Habanera konposizio-lehiaketa 1977 eta 1978an.

Oviedon burututako lehiaketan, Asturiar gaiei buruzko Koru Konposizioko Nazio Saria, 1980 eta 1981ean.

Erroman (1980) Nazioarteko Konposizio Saria "Annunciate la parola" poema sinfoniko-koralaren bidez. Tolosako Abestaldeen Lehiaketan Konposizio Saria, 1980 eta 1981ean.

"Suite de concierto" musika-lanak lehen saria irabazi zuen Valenciako Udalak antolatutako banda Sinfonikoentzako Nazioarteko I. Konposizio Lehiaketan. Tomás Aragüés Bayarte Barakaldoko Musika Bandaren zuzendari ohiaren semea da. Askotan zuzendu du Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.

*Nació en Albalate (Zaragoza) en 1932. Catedrático de Dirección de Orquesta y Coros del Conservatorio Superior de San Sebastián. En 1977 dirigió el Coro Easo. Durante el periodo 1974-79 dirigió el Conjunto Barroco de San Sebastián. En 1980 se organiza la nueva Orquesta del Conservatorio donostiarra de la que es director.*

*Realizó sus estudios musicales en el Conservatorio de Bilbao con posteriores asistencias a cursos internacionales de perfeccionamiento.*

*Es autor de buen número de obras sinfónicas y corales: Tres sinfonías (inédita). La rosa de pasión (1960). Sinfonía del Ebro (1961). Gure etxea (1963). Concierto para trompa y orquesta (1973). Quinteto vasco (1975). Bost eleiz eresi (1979).*

*Tiene importantes premios de composición: Concurso de Composición de Habaneras para Masas Corales en Torrevieja (Alicante) los años 1977 y 1978. Premio Nacional de Composición Coral sobre temas asturianos 1980 y 1981. Premio Nacional de Composición en Roma (1980) por el poema sinfónico-coral "Annunciate la parola". Premio de composición en el Concurso de Música Vasca para Masas Corales de Tolosa en 1980 y 1981. Obtuvo el Primer Premio en el I Concurso Internacional de Composición para Bandas Sinfónicas, convocado por el Ayuntamiento de Valencia, en 1982.*

*Tomás Aragüés es hijo de Tomás Aragüés Bayarte (1903-1956) director de la Banda Municipal de Baracaldo y catedrático de Armonía y Composición del Conservatorio de Bilbao.*

*En varias ocasiones ha dirigido a la Orquesta Sinfónica de Euskadi.*

# Luis ARAMBURU MARTÍNEZ DE SAN VICENTE

1905ean Gasteizen jaio zen. Bere aitarekin, Juan Santiagorekin, hasi zituen musika-ikasketak. Gero, harmoniako ikasketak burutu zituen A. Jose Domingo de Santa Teresarekin. Pianoko, organoko, biolontxeloko eta tronpako ikasketak baliozkotu zituen Bilboko kontserbatorioan.

Musikagile emankorra zen, bere burua aurkezten zuen konposizio-lehiaketa guztietan garaile ateratzen zen eta musika erlijiosoaren arloan sortu zituen batez ere bere musika-lanik gehienak: 50 himno, motete, gabon kanta, salmo, etab... Baina, era berean, baditu erromantza eta musika-lan koral ugari, 50 baino gehiago, txisturako musika, musika sinfonikoa eta ia ezezagunak diren beste hainbat musika-lan talde instrumental txikientzat sortuak. Gasteizen hil zen 1999ko maiatzaren 5ean.

*Nació en Vitoria-Gasteiz en 1905. Hizo sus primeros estudios musicales con su padre, Juan Santiago. Estudió armonía con el P. José Domingo de Santa Teresa. Convalidó sus estudios de piano, órgano, violoncello y trompa en el Conservatorio de Bilbao.*

*Compositor prolífico, vencedor en cuantos concursos de composición se presentaba.*

*Su lista de obras presenta un amplísimo predominio de música religiosa: 25 misas, 50 himnos, motetes, villancicos, salmos, etc... Pero también es autor de un gran fondo de romanzas y obras corales, más de 50, música para txistu, música sinfónica, y otras obras para grupos instrumentales menores, que apenas son conocidas. Falleció en Vitoria-Gasteiz el 5 de mayo de 1999.*

# David AZURZA

1969 Tolosan (Gipuzkoa) jaio zen 1969an. Arte Ederretan (Zaharberritzea) lizentziatua da. Kontratenore-ikasketak Isabel Alvarezekin burutu zituen eta irakasle izateko titulua Madrileko Teresa Berganza Kontserbatorioan atera zuen. Sakontze-ikastaroak C. Högset, A. Baldin, Th. Quasthoff eta T. Brown maisuekin egin ditu.

1983az geroztik Hodeiertz koruan kantatzen ari da eta Peñaflorida Kaperako (antzinako musika) eta Kea Taldeko (musika garaikidea) kidea da.

Hainbat musika-antzerkitan parte hartu du: El borracho burlado (Peñafloridako Kontea), Itziar (M. De Oñate), Miserableak (euskaraz), etab...

Esperentzia handiko zuzendaria da haur eta gazte koruetan. Bergarako Orfeoia zuzentzen du gaur egun.

1993an Tolosako Nazioarteko Abesbatzen Lehiaketan Haur Koruentzako Konposizioko Bigarren Saria irabazi zuen eta 1998an Lehenengo Saria Joxemari Iturralderen hitzetan oinarrituriko "Bost joku zerutiar" musika-lanaren bidez.

*Nace en Tolosa (Gipuzkoa) en 1968.*
*Es licenciado en Bellas Artes (Restauración).*

*Hizo estudios de canto como contratenor con Isabel Alvarez y titulación como Profesor por el Conservatorio Teresa Berganza de Madrid. Cursos de perfeccionamiento con C. Högset, A. Baldin, Th. Quasthoff y T. Brown.*

*Desde 1983 canta en el coro Hodeiertz y pertenece también a la Capilla Peñaflorida (música antigua) y al grupo Kea (música contemporánea).*

*Ha actuado en diversos montajes escénico-musicales, como El borracho burlado (Conde de Peñaflorida), Itziar (M. de Oñate), Los miserables (en euskera), etc.*

*Posee una gran experiencia como director de coros infantiles y juveniles. Actualmente dirige el Orfeón Bergarés.*

*En 1993 recibió el segundo premio de Composición para Coros Infantiles en el Concurso Internacional de Coros de Tolosa y en 1998 el primer premio por la obra Bost joku zerutiar, sobre textos de Joxemari Iturralde.*

# Javier BUSTO SAGRADO

1949an Hondarribian jaio zen. Medikuntzan lizenziatu zen Valladolideko Unibertsitatean. Bere kabuz burutu zituen musika-ikasketak. Geroago, koru-zuzenketa ikasi zuen Erwin List maisuarekin. 1971tik 1976ra bitartean, Valladolideko "Ederki" koruko zuzendaria izan zen. 1978. urtean Hondarribiko "Eskifaia" korua sortu eta 1994 arte zuzendu zuen.

1995. urtean Donostian ahots zuriko "Cantemus Korua" sortu zuen. "Eskifaia" koruarekin lehenengo sariak lortu ditu ondorengo txapelketa hauetan : Ejea de los Caballeros, Tolosa, Avilés, Tours, Gorizia, Spittal, Mainhausen eta Marktoberdorf.

Era berean, Bilbo, Tolosa eta Igualadan koru-konposizioko lehenengo sariak irabazi ditu. Koru-zuzenketako ikastaroak ematen ditu eta koru-zuzenketa eta konposizioko epaimahaikoa izaten da. 1995. urtean Arezzoko Nazioarteko Txapelketako epaimahaikide izendatu zuten.

*Nace en Hondarribia, País Vasco, en 1949. Licenciado en Medicina por la Universidad de Valladolid. Formación musical autodidacta. Estudia dirección de coros con el Mº Erwin List. Director del coro "Ederki" en Valladolid (1971-1976).*

*Fundador y director del coro "Eskifaia" de Hondarribia (1978-1994).*

*En 1995 crea en San Sebastián "Cantemus Koroa", coro de cámara femenino. Con el coro "Eskifaia" consiguió primeros premios en los concursos de Ejea de los Caballeros, Tolosa, Avilés, Tours, Gorizia, Spittal, Mainhausen y Marktoberdorf.*

*Primeros premios de composición para coros en Bilbao, Tolosa e Igualada.*

*Imparte cursos de dirección coral y participa como jurado en concursos de composición e interpretación para coros.*

*En 1995 es nombrado miembro del Jurado Internacional en Arezzo.*

# P. Jose Antonio de DONOSTIA

1886ko urtarrilaren 10ean Donostian jaio zen. Jose Gonzalo Zulaika Arregi izena zuen eta kaputxinoen artean, berriz, P. Jose Antonio de San Sebastián.

Oso gaztetik euskal musikarengatik burutu zuen lan itzela zela medio, guztiek Aita Donostia deitzen zioten.

Ismael Etxazarra izan zen bere lehenengo irakaslea Lekarozeko Ikastetxean. Bernardo de Gabiolarekin Donostian eta Adria Esquerrá-rekin Bartzelonan sakondu zituen ikasketak.

1920an eta 1921ean, beregan eragin handia izan zuen Eugéne Cools-ekin ikasi zuen Parisen.

Teknika zaindu eta ultramodernoz musika sakratuari arreta berezia eskaini bazion ere, orfeoirako euskal musikak eta pianorako Euskal Preludioek izan zuten arrakastarik handiena.

Egin zituen aurkikuntza etnomusikologikoengatik, euskal folklorearen eta beste hainbat gairen erakusle sakona bihurtu zen. Hamabi ale argitaratu dira bere musika-lanez eta beste 9 ale musika eta literatur-lanez; horien artean "Cancionero vasco" bilduma. Genero guztietako musika-lanak idatzi ditu eta horien artean Lied-partitura ugari sortu zituen katalanez, gaztelaniaz, frantsezez eta euskaraz. Lekarozen hil zen 1956ko abuztuaren 30ean.

Musika-lanak: Missa pro defunctis, Poema de la Pasión, Moteteak, Gabon-kantak, Orfeoirako euskal kantak, Pianorako Preludioak, Itinerarium mysticum (organoa), La vie profonde de Saint François d'Assise (antzerkia), Les trois miracles de Sainte Cécile (antzerkia), Orkestrarako Preludioak, etab...

*Nació el 10 de enero de 1886 en San Sebastián. Su nombre de pila era José Gonzalo Zulaica Arregui. Y el de religioso capuchino P. José Antonio de San Sebastián.*

*Merced a la gran tarea que realizó desde su juventud por la música vasca, pasó de ser nominado popularmente "Aita Donostia". Tuvo como primer maestro de composición a Ismael Echazarra, durante su estancia de estudiante en el Colegio de Lecaroz. Continuó estudios con Bernardo de Gabiola en San Sebastián y con Adriá Esquerrá en Barcelona.*

*En 1920 y 1921 estudió en París con Eugéne Cools, quien dejó en él una gran huella.*

*Aunque prestó una atención especial a la composición de música sacra con una técnica depurada y ultra moderna, se popularizaron más sus partituras orfeónicas vascas y sus Preludios Vascos para piano.*

*Sus descubrimientos etnomusicológicos le convirtieron en un profundo expositor de teorías sobre el folklore vasco y otros temas musicológicos. Su Obra Musical ocupa doce tomos editados y su Obra Literario-Musical abarca nueve tomos, en los que está incluído su Cancionero Vasco. Su patrimonio musical abarca todos los géneros y entre ellos compuso muchas partituras de lied en catalán, castellano, francés y euskera. Falleció en Lekaroz el 30 de agosto de 1956.*

*Obras: Missa pro defunctis, Poema de la Pasión, Motetes, Villancicos, Canciones orfeónicas vascas, Preludios de piano, Itinerarium mysticum (órgano), La vie profonde de Saint François d'Assise (teatro), Les trois miracles de Sainte Cécile (teatro), Preludios vascos para orquesta, etc.*

# José Erviti Segarra

1852ko abuztuaren 4an Iruñean jaio zen. Bertako Udal Musika Eskolan burutu zituen musika-ikasketak. Sariak irabazi zituen solfeo, biolin eta flautako ikasketetan. 12 urte zituenean, Iruñeko Udal Bandako piccoloa eta lehenengo kornetina izan zen. 1872an Madrileko Kontserbatorioan sartu zen eta 1875ean Harmoniako Lehenengo Saria irabazi zuen. Konposizioko ikasketak burutu zituen Emilio Arrietarekin Nafarroako Diputazioaren laguntzaz eta Bretón, Chapí eta Serrano maisuak izan zituen ikaskide. Ikasketak amaitu zituenean Joaquín Larregla izan zuen lagun. 1879az geroztik Boltsako Aretoetako dantzetan eta herri kontzertuetan jotzen zuen "Skating Rihn" orkestraren zuzendaria izan zen. Harmoniako irakaslea izan zen Institutu Filarmonikoan.

Madrileko Lope de Vega kaleko 7.ean Erviti musikaetxea ireki zuen eta harmonia eta konposizioko akademia sortu zuen, bere metodo argitaratua eta guzti. Postatrukez egindako ikastaroen bidez hedatu zuen bere irakaskuntza.

1881ean "El Centenario" eta "Jota" musika-lanak aurkeztu zituen Madrilen Unibertsitate Zentralak Calderón de la Barca idazlearen omenez antolatu zuen lehiaketan. Lehenengoagatik zilarrezko domina eskuratu zuen eta bigarrenagatik brontzezkoa. Lehiaketaren arauek agindutakoaren arabera, ikasleerrondaileetan erabiltzen diren musika-tresnek jotzeko musika-lanak izan behar zuten, hots, flauta, biolin, gitarra, bandurria eta panderoak".

Ondoren, Ervitik bi musika-lan horiek musika-bandak jotzeko egokitu zituen. "El Centenario" eta "Sangre torera" dira bere musika-lanik ospetsuenak eta Espainiako hainbat herritan jo izan dira.

1883an, Madrileko dendak arduradun bat utzi zuen eta Meridara abiatu zen eta Musika, Banda eta Orkestrako Udal Akademia sortu zuen. Bertan ezkondu zen Donostiako Fermina Bandres anderearekin eta alaba bat besterik ez zuten izan; Ines izena zuen.

1891n Madrileko eta Meridako denda eta akademia, hurrenez hurren, itxi ondoren, Donostiara joan zen bizitzera eta gaur egun arte prestigio handia izan duen eta oraindik duen Erviti musika-etxea ireki zuen.

*Nació en Pamplona el 4 de agosto de 1852.*

*Hizo sus estudios musicales en la Escuela Municipal de Música de su ciudad natal. Obtuvo premios en las clases de solfeo, violín y flauta.*

*A los 12 años tocaba en la Banda Municipal de Pamplona, encargado del flautín y cornetín primero.*

*En 1872 se trasladó a Madrid e ingresó en su Conservatorio, obteniendo en 1875 el Primer Premio de Armonía.*

*Pensionado por la Diputación de Navarra, continuó estudios de Composición con Emilio Arrieta, siendo condiscípulo de los maestros Bretón, Chapí y Serrano. Al finalizar los estudios tuvo como compañero a Joaquín Larregla.*

*Desde 1879 fue director de la Orquesta "Skating Rihn", que intervenía en los conciertos populares y bailes de los Salones de la Bolsa.*

*Fue profesor de armonía en el Instituto Filarmónico.*

*También abrió en la calle Lope de Vega, nº 7 de Madrid el comercio musical Casa Erviti. En él creó una Academia de Armonía y Composición, con su método propio editado. Extendió su enseñanza a través de cursos por correspondencia.*

*En 1881 presentó en Madrid al Concurso-Homenaje a Calderón de la Barca, organizado por la Universidad Central, sus obras "El Centenario" y "Jota". Por la primera obtuvo medalla de plata y por la segunda medalla de bronce. Los originales fueron presentados , como exigían las bases, "para los instrumentos que se usan generalmente en las estudiantinas, a saber, flautas, violines, guitarras, bandurrias y panderetas".*

*Más tarde Erviti adaptó para Banda de Música ambas piezas. "El Centenario" y "Sangre torera" fueron sus obras más populares, que se han interpretado en toda clase de poblaciones españolas.*

*En 1883, dejando un encargado en su establecimiento de Madrid, se trasladó a Mérida, donde creó la Academia Municipal de Música, Banda y Orquesta.*

*En esta ciudad contrajo matrimonio con la donostiarra Fermina Bandrés, sin más descendencia que la hija Inés.*

*En 1891 los tres se trasladaron a San Sebastián. Tras clausurar su actividad de Madrid y Mérida, instaló su comercio Casa Erviti en esta ciudad, adquiriendo*

# José Erviti Segarra

Jose Erviti Donostian hil zen 1900eko urtarrilaren 9an, 47 urte zituenean.

Musika-lanak:

Gabon-kantak: La Noche Buena, 2 ahots eta org.; La Estrella de Oriente, 2 ahots eta org.

Kantuak: Gozos a la Purísima Concepción, ahots bakarra eta org.; Septenario a los Dolores, ahots bakarra eta org.; Gozos a San Antonio, ahots bakarra eta banda.

Pianoa: La estudiantina. El valenciano. La cita. El pájaro azul. El ángel. La extremeña. La salerosa. El Espartero. Mazzantini. ¡¡¡Se la cortó!!! La Victoria de Imus.

Banda: El Centenario. Medidas sanitarias. La Virgen de la Montaña. Inesita. La guipuzcoana. La flamenca. Castellón. El Marusiñu. El Espartero. Sangre torera. El carnaval. Ven a bailar. Mi patrona. Una morena. Somos estudiantes. Fueros.

*un gran prestigio, que ha sabido mantener hasta nuestros días.*

*José Erviti falleció en San Sebastián a los 47 años el 9 de enero de 1900.*

*Obra:*

*Villancicos: La Noche Buena, 2 v. órg.; La Estrella de Oriente, 2 v. órg.*

*Canciones: Gozos a la Purísima Concepción, 1 v. órg.; Septenario a los Dolores, 1 v. órg.; Gozos a San Antonio, 1 v. y banda.*

*Piano: La estudiantina. El valenciano. La cita. El pájaro azul. El ángel. La extremeña. La salerosa. El Espartero. Mazzantini. ¡¡¡Se la cortó!!! La Victoria de Imus.*

*Banda: El Centenario. Medidas sanitarias. La Virgen de la Montaña. Inesita. La guipuzcoana. La flamenca. Castellón. El Marusiñu. El Espartero. Sangre torera. El carnaval. Ven a bailar. Mi patrona. Una morena. Somos estudiantes. Fueros.*

# Hilario EXTREMIANA BARRASA

Carmelo Bernaola, Juan Cordero eta Anton Garcia Abril maisuekin konposizioa ikasi du eta Enrique Garcia Asensiorekin Orkestra Zuzendaritza Madrileko Goi Mailako Musika Kontserbatorioan. Era berean, pianoko eta klarineteko ikasketak egin ditu.

Musika Konposizioko sakontze ikastaroak burutu ditu eta nazioarteko eta nazioko hainbat topaketetan parte hartu du Luis de Pablo, Franco Donatoni (Siena-Italia), José Luis Campana, Cristóbal Halfter, Carles Guinovart, Tomás Marco maisuekin.

Arabako Foru Diputazioaren beka eskuratu zuen eta hainbat sari irabazi ditu, horien artean, Madrileko "Saxofoirako Ganbara Musika" Nazioarteko Konposizio Lehiaketako Lehenengo Saria eta Eusko Jaurlaritzaren Musika Sorkuntzako Saria 1999an.

Hainbat ikastegitako irakaslea da; 1990etik 1999ra Bilboko Juan Crisostomo Arriaga Goi Mailako Musika Kontserbatorioko Harmoniako irakaslea eta bertako Orkestraren zuzendaria izateaz gainera, ikastetxeko zuzendaritzakidea izan da; "Juventudes Musicales" eta Deustuko Unibertsitateak antolatutako hainbat ikastaro eman ditu. Arabako Metal Taldeko zuzendaria izan zen eta Barakaldoko Zigor Abesbatzaren zuzendaria; gaur egun Gasteizeko Udal Musika Bandako zuzendaria da.

Bere musika-lanak ondoko nazioarteko eta nazioko jaialdietan jo izan dira: Errenteriako MUSIKASTE, Donostiako eta Durangoko Musika Hamabostaldia, XX. Mendeko Musika Jaialdiak, Musikaren Europear Urtea (El Espinho - Portugal), Royal School of Music (Londres), etab...

1998-99 denboraldian, "Bilgune baterako musika - Música para un encuentro" musika-lana estrenatu zion Euskadiko Orkestra Sinfonikoak eta laister "Interludio variado" musika-lana estrenatuko du Irlandan eta Bilboko Orkestra Sinfonikoaren ganbara-kontzertuetan.

KURAIAren (Musika garaikidearen sorkuntzarako eta difuziorako musikarien elkartea)sortzailea eta kidea da.

*Estudió composición con Carmelo Bernaola, Juan Cordero y Antón García Abril y realizó sus estudios de Dirección de Orquesta con Enrique García Asensio en el Conservatorio Superior de Música de Madrid. También estudió piano y clarinete.*

